ASTI LEKU

# ALdizkaria

IKUSI MAKUSI, HAU IRAKURRI



2. ZENBAKIA / ABENDUA / 2018

Euskadi 2006


JUAN CARLOS NABERAN ETA IÑAKI VÁZQUEZ.


**KOOPERATIBAREN AHOTSAK** **4**
*KLUBA*

**KULTUR ETA SORMEN EKARPENAK** **11**
*LANGILEENAK*

**IKASTOLAREN AHOTSAK** **12**
*IKASLE OHIAK*
*HIZPRO*

**ALBISTEAK** **16**
*IKASLE-TRUKEAK*

**ELKARREKIN IKASIZ** **18**
*NUTRIZIOA ETA OSASUNA*
*IKASLEENAK*

**AISIALDIA** **22**
*LIBURUAK*

**DENBORA-PASAK** **24**

# ETAPA BERRIA AUKERAZ BETETA

***18-19 IKASTURTEA MARTXAN DAGO JADANIK; LEHEN HIRUHILEKOA AURRERA DOA ETA IA GOGORATU ERE EZ DITUGU EGITEN DENOK ZERBAIT ESTREINATZEN DUENAREN ILUSIOAREKIN IKASTOLARA HELDU GINEN IRAILEKO LEHENENGO EGUNAK. ORAIN, ABENDUAN, HIRUHILEKOAK AZKAR IGAROTZEN DIREN SENTSAZIOA EZINBESTEKOA DA, BAINA EGINDAKOARI BEGIRATZEN BADIOGU, EGIA DA AURRERA EGIN DUGULA, ETA EZ GUTXI.***

Lehenengo aldaketa, Asti Lekuk Zuzendari berria duela da: Iñaki Vázquez. Etxeko kidea da, 17 urtez ikasketa burua izan baita eta iaz dagoeneko Ikastolako Zuzendariorde gisa aritutakoa. Juan Carlos Naberanen ibilbidea eta lana eredugarri dira guretzat, eta oraindik ere zuzendaritza talde berriari laguntza eta aholkuak emanez jarraitzen du. Nire aldetik, argi eta garbi daukat etapa berria denontzat ikasteko eta hazteko aukerez beteta egongo dela, baina, aldi berean, hemendik, Juan Carlosi ikastola guztiaren esker ona eta mirespena helarazi gura dizkiot, egin duen lanarengatik, izaerarengatik, entregarengatik eta lorpenengatik.

Proiektu pedagogikoei dagokienez, esan behar dugu metodologia berriak maila guztietan ari direla jadanik ezartzen: Haur Hezkuntzako esparru berria martxan dago jadanik ikastolan, EKI sartu da Lehen Hezkuntzan (LH), eta maila guztietako ikasketa kooperatibo metodologia eta Batxilergoko proiektua ere aurrera doaz. Aurreikusitako erritmoan jarraitzen duen berriztatze metodologikoa da, ikasketa partaideagoa, modernoagoa, bilatuz.

Kudeaketari dagokionez ere izan ditugu lorpen garrantzitsuak. Urriaren 25ean, Portugaleteko Udaleko Gobernu Batzarrak Asti Lekuko Hirigintza Jarduera Programari hasierako onespena emateko akordioa hartu zuen. Lerro hauek irakurtzen dituzuen unean, baliteke hirigintza arloko tresna horren behin betiko onespenetik oso gertu egitea. Beste pauso bat da, eta nahiko garrantzitsua, ikastolaren helburua lortzeko: instalazioak berriztatzea, bai ikasgelei (batxilergoa), bai kirol ekipamenduei dagokienez.

Beste alde batetik, datorren hiruhilekoan, azpimarratu gura dudan oso erronka garrantzitsua dugu: matrikula prozesua. Ezkerraldea jasaten ari den demografiaren erorketak eragin negatiboa izan dezake ikastolako Haur Hezkuntzako ikasgeletan sartuko den ikasle kopuruan. Gure proiektua oso erakargarria da familientzat, baina une honetan oso komenigarria da hezkuntzako komunitate osoaren lankidetzarekin –ikasleak, familiak eta profesionalak– gure inguruan balioan jartzea.

Beno, ez naiz gehiago luzatuko: zuen aurrean ikastolaren aldizkariaren beste ale bat daukazue. 2017-2020 Plan Estrategikoaren barruan martxan jartzea erabaki zen Asti Lekuren ***Ikusi Makusi*** berria edo berriztatua. Bigarren zenbaki honek lehenengoak bezain harrera ona izango duelakoan.

***EL CURSO 18-19 ESTÁ YA EN MARCHA; HEMOS TRANSITADO YA EL PRIMER TRIMESTRE Y CASI NI NOS ACORDAMOS DE LOS PRIMEROS DÍAS DE SEPTIEMBRE EN QUE TODOS Y TODAS LLEGAMOS A LA IKASTOLA CON LA ILUSIÓN DE QUIEN ESTRENA ALGO. AHORA EN DICIEMBRE, LA SENSACIÓN DE QUE LOS TRIMESTRES PASAN RÁPIDO ES INEVITABLE PERO SI ECHAMOS CUENTA DE LAS COSAS REALIZADAS, LA VERDAD ES QUE HEMOS AVANZADO, Y NO POCO.***

Un primer cambio que reseñar es que Asti Leku tiene un nuevo Director: Iñaki Vázquez. Es un hombre de la casa, que durante 17 años ha desempeñado la jefatura de estudios y que durante el pasado curso ejerció ya de Subdirector de la ikastola. Juan Carlos Naberan, cuya trayectoria y desempeño han de servirnos como modelo, continúa apoyando y aconsejando al nuevo equipo directivo. Por mi parte estoy convencido que la nueva etapa estará también llena de oportunidades de aprendizaje y crecimiento para todos y todas, pero al mismo tiempo desde aquí quiero hacer llegar a Juan Carlos el agradecimiento y la admiración de toda la ikastola por su labor, carácter, entrega y acierto.

En cuanto a los proyectos pedagógicos, tenemos que señalar que las nuevas metodologías se están implementando en todos los niveles: el nuevo marco de Educación Infantil está ya en marcha en la ikastola, la incorporación de EKI en Educación Primaria (LH), la metodología del aprendizaje cooperativo en todas las etapas y el proyecto de Bachillerato también avanzan. Se trata de una renovación metodológica que continúa al ritmo previsto buscando un modelo de aprendizaje más participativo, más moderno.

En gestión también hemos tenido algún logro muy significativo. La Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Portugalete el día 25 de octubre adoptó el acuerdo de aprobación inicial del Programa de Actuación Urbanizadora de Asti Leku. En el momento en el que leáis estas líneas es posible que estemos cerca de la aprobación definitiva de dicho instrumento urbanístico. Es un paso más, y bastante importante, hacia el objetivo de la ikastola: la renovación de las instalaciones tanto en aularios (bachillerato) como en equipamientos deportivos.

En otro orden de cosas, el próximo trimestre tenemos un reto especialmente importante que quiero señalar: el proceso de matrícula. La caída demográfica que está experimentando Ezkerraldea puede tener reflejo negativo también en el número de alumnos que ingresen en las aulas de Educación Infantil de la ikastola. Nuestro proyecto tiene un atractivo indudable para las familias, pero en este momento es muy conveniente que con la colaboración de toda la comunidad educativa –alumnos, familias y profesionales- lo pongamos en valor en nuestro entorno.

En fin, no me alargo más: tenéis ante los ojos un nuevo ejemplar de la revista de la ikastola. El nuevo o renovado ***Ikusi Makusi*** de Asti Leku que se decidió poner en marcha en el marco del plan Estratégico 17-20. Esperamos que este segundo número tenga tan buena acogida como el primero.

**JESÚS BILBAO**
*IKASTOLAKO ZUZENDARI OROKORRA*

## *ERREKTORE BATZORDEA*



**JESÚS BILBAO**
*IKASTOLAKO ZUZENDARI OROKORRA*

# ASTI LEKUKO HJP-PAU-REN ONESPENA

*DUELA DENBORA GUTXI IKASTOLAKO HJP-PAU ONETSI DA. DOKUMENTU HORRI ESKER, GURE INBERTSIOEN ERRITMOA ETA ANTOLAMENDUTIK KANPO DAUDEN ETXBIZITZEN UDAL KUDEAKETAREN ERRITMOA BEREIZTU EGINGO DIRA. HORI DELA ETA, IKASTOLAREN EKIPAMENDU ETA HIRIGINTZA ARLOKO GARAPENAK AURRERA EGIN DEZAKE. ETORKIZUNEKO ASTI LEKU HURBILTZEN ARI DA.*

Urriaren 25ean, Portugaleteko Udaleko Gobernu Batzarrak Asti Lekuko sektoreko Hirigintza Jarduera Programari (HJP-PAU) hasierako onespena emateko akordioa hartu zuen. Dokumentu horren ezaugarrietako bat, ikastola dagoen sektorean bi egikaritze unitate bereiztu, desberdin, ezartzen dituela da.

Horri esker, alde batetik, Asti Lekuk batxilergoko beste eraikin bat eta futbol zelaia bezalako beste kirol instalazio batzuen ondoan egongo den kirol ekipamendu itxia eraikitzeko planak aurrera eraman ahal izango ditu eta, bestetik, ikastolaren ondoan, antolamendutik kanpo dauden etxebizitzen nondik norakoaren kudeaketak, Udalak erabakitzen duen erritmoa eraman ahal izango du. Hau da, egikaritze unitate bakoitza ikastolaren beharretara eta herritarren beharretara egokitu ahal izango da.

Dokumentuaren hasierako onespenaren eta argitalpenaren ondoren, alegazio epealdia irekitzen da, eta horien eragina jasotzen dutenek, euren iritziz egokiak diren aldaketak proposatu ahal izango dituzte. Ikastolak, bere aldetik, alegazio izapide hori ahalbidetu gura du, Udalarekin lankidetzan, zenbait hirigintza jarduera ezartzeko, hondakindegia zigilatzeko (horri buruz aldizkari honen aurreko zenbakian hitz egin zen) eta ikastetxeko bizitzarekin bateragarriak diren hezkuntza eta kirol arloetako ekipamenduak eraikitzeko.

Asti Lekuko HJP-PAU behin betiko onetsi ostean, egin beharreko hirigintza birzatiketa proiektua onetsi beharko da, obra lizentziak eskatu aurreko azkenengo kudeaketa. Proiektu hori egiten hasi da, eta hurrengo hilabeteetan Udalaren aurrean aurkeztea aurreikusten dugu.

Hurrengoa –eta garrantzitsuena–, behar ditugun ekipamenduen eraikuntza proiektuetan asmatzea izango da. Ikastolak gaur egin dituen eraikinak beren garaietatik jasotakoak dira eta, –batxilergoko “behin behineko” ikasgela-guneak izan ezik– etorkizunera egokitzeko aukera handiak eskaintzen dituzte. Berriek, inolako zalantzarik gabe, XXI. mendeko ikastolaren erreferente izan behar dute.

CONSEJO RECTOR







# APROBACIÓN DEL PAU DE ASTI LEKU

*SE HA APROBADO INICIALMENTE EL PAU DE LA IKASTOLA. ESTE DOCUMENTO PERMITE QUE EL RITMO DE NUESTRAS INVERSIONES Y EL DE LA GESTIÓN MUNICIPAL DE LAS VIVIENDAS FUERA DE ORDENACIÓN SE SEPAREN. POR TANTO, EL DESARROLLO EQUIPAMENTAL Y URBANÍSTICO DE LA IKASTOLA PUEDE AVANZAR. SE ACERCA EL ASTI LEKU DEL FUTURO.*



El día 25 de octubre se acordó por la junta de gobierno del Ayuntamiento de Portugalete la aprobación inicial del programa de actuación urbanizadora (PAU) del sector de Asti Leku. Este documento tiene la virtud de que en él se establecen dos unidades de ejecución diferenciadas para el sector en el que se enclava la ikastola.

Gracias a ello, por un lado Asti Leku podrá desarrollar sus planes de levantar un nuevo edificio de bachillerato y un equipamiento polideportivo cerrado junto a otras instalaciones deportivas como el campo de fútbol y, por otro lado, la gestión del destino de las viviendas que se encuentran fuera de ordenación junto a la ikastola podrá llevar el ritmo que el Ayuntamiento determine. Es decir, cada unidad de ejecución podrá acomodarse tanto a las necesidades de ikastola como a las de los vecinos.

A partir de la aprobación inicial y publicación del documento, se abre un periodo de alegaciones donde los afectados pueden proponer aquellos cambios que consideren oportunos en el mismo. La ikastola, por su parte, quiere también aprovechar ese trámite de alegación para establecer –en colaboración con el Ayuntamiento- un orden de las diferentes actuaciones de urbanización, de sellado del vertedero (de esto se habló en el anterior número de esta revista) y de construcción de los equipamientos educativos y deportivos que sean compatibles con la vida escolar.

Tras la aprobación definitiva del PAU de Asti Leku, quedará pendiente la aprobación del correspondiente proyecto de reparcelación urbanística, último hito de gestión previo a la solicitud de licencias de obra. La elaboración de este proyecto está ya iniciada y esperamos poder someterlo a la consideración municipal en los próximos meses.

Lo siguiente –y más importante- será acertar con los proyectos constructivos de los equipamientos que necesitamos. Los edificios actuales de la ikastola son herederos de su tiempo y –con la excepción del aulario "provisional" de bachillerato- ofrecen muchas posibilidades de adaptación al futuro. Los nuevos han de ser sin duda referentes para una ikastola del siglo XXI.

## ESKOLA KONTSEILUA

*ASTI LEKUREN FUNTZIONAMENDURAKO OSO ERAKUNDE GARRANTZITSUA DA ESKOLA KONTSEILUA. IZAN ERE, ERAKUNDE HONEN BARNEAN IKASTOLAKO HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN AGENTE GUZTIAK BATZEN DIRA: ERREKTORE KONTSEILUKO KIDEAK, GURASOEN ORDEZKARIAK, LANGILEENAK (IRAKASLEENAK ZEIN ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKOENAK) ETA IKASLEENAK. HONEN BURUA IKASTOLAKO ZUZENDARI PEDAGOGIKOA DA.*

**IÑAKI VÁZQUEZ**
*ZUZENDARIA*



# ESKOLA KONTSEILUA

## BERRITZE PARTZIALA

Bestalde, organo honen funtzionamendua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak publikatu zuen dekretu baten bidez arauturik dago (10 / 2007 urtarrilaren 30ko dekretua, 2007/02/05ean argitaratua EHAAn) eta eskola edo ikastetxe publiko eta itunpeko guztietan eraturik egon behar du.

Ikasturte honetan, modu ofizialean ere, Eskola Kontseiluko berritze partziala egin behar izan dugu ordezkari-talde bakoitzean: Errektore Kontseiluko ordezkari bat hiru kideko; irakasleen bi ordezkari lau kideko, LHko ordezkaria eta Batxilergokoa; ikasleen ordezkari biak aldatu ditugu, aurtengo batxilergoko geletako delegatuen artean; Administrazio eta Zerbitzutako bakarra ere bai; eta gurasoen 4 ordezkarietatik bi ere aldatu behar izan ditugu.

Ordezkari-talde bakoitzaren barruan modu ezberdinak erabiltzen dira prozesua burutzeko, hautesle eta hautagai kopurua nahiko murriztuak izaten direlako. Gurasoen ordezkarien prozesua, aldiz, apur bat konplexuagoa da kontrako arrazoiarengatik: Asti Lekun ditugun 1688 ikasleen ama, aita edo legezko tutoreak, 2439 hautagai posible eta hautesle izan daitezke. Kasu honetan, beraz, hauteskunde prozesua zaildu egiten da.

Urriaren 26tik azaroaren 8ra arte guraso guztiek euren kandidatura aurkezteko epea izan zuten, zirkular batean adierazi zen bezala: 7 pertsona aurkeztu ziren, 5 ama eta 2 aita.

Azaroaren 9an zirkular baten bidez, botoa emateko azalpenak eta boto-paperak gurasoei bidali genizkien.

Horrela, gurasoen artean 2 ordezkari aukeratzeko azaroaren 15ean eta 16an hauteskundeak izan ziren. Ostean, botoen zenbaketa azaroaren 20an burutu zen, Leire Agirre eta Leire López izan zirelarik aukeratuak.

Eskola Kontseilu Berriko partaideak hauek izango dira:

- Errektore Kontseiluko Oskar García, Josefina San Miguel y Leire San Martín.
- Langileen ordezkariak:
  - Irakasleak: Karmele Martitegi, Eneko Olabarria, Estibaliz Solatxi eta Batirtze Ibañez.
  - Administrazio eta Zerbitzuak: Zuriñe Arruza.
- Ikasleen ordezkariak: Naia Garcia eta June Jauregibeitia.
- Gurasoen ordezkariak: Sara Susial, Seine García, Leire Agirre eta Leire López.
- Zuzendari pedagogikoa: Iñaki Vázquez.

Kontseiluaren osaketa abenduaren 11n gauzatu da. Hemendik aurrera 2 ikasturteko lana izango du Eskola Kontseilu honek, bi ikasturte barru berriro prozesu berean egongo garelako.

Animo eta eskerrik asko guztioi!

CONSEJO ESCOLAR



# CONSEJO ESCOLAR

## RENOVACIÓN PARCIAL

*EL CONSEJO ESCOLAR ES MUY IMPORTANTE PARA EL FUNCIONAMIENTO DE ASTI LEKU. HAY QUE TENER EN CUENTA QUE EN DICHO ORGANISMO SE REÚNEN TODOS LOS AGENTES DE LA COMUNIDAD EDUCATIVA DE LA IKASTOLA: LOS MIEMBROS DEL CONSEJO RECTOR, REPRESENTANTES DE LOS PADRES Y LAS MADRES, DE LOS TRABAJADORES Y LAS LOS TRABAJADORAS (PROFESORES Y MIEMBROS DE LA ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS) Y DEL ALUMNADO. DICHO ÓRGANO ESTÁ PRESIDIDO POR EL DIRECTOR PEDAGÓGICO DE LA IKASTOLA.*

Por otra parte, el funcionamiento de dicho órgano se regula mediante decreto publicado por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco (Decreto 10/2007 de 30 de enero, publicado en el BOPV de 05/02/2007), y debe estar constituido en todas las escuelas y centros de enseñanza públicos y concertados.

Durante este curso, de manera oficial, hemos tenido que realizar la renovación parcial del Consejo Escolar en cada grupo representado: un representante del Consejo Rector por cada tres miembros; dos representantes del profesorado por cada cuatro miembros, el o la representante de Educación Primaria y de Bachillerato; hemos renovado los dos representantes del alumnado, elegidos entre los delegados de Bachillerato del curso actual; también se ha renovado el único representante de administración y servicios; y hemos tenido que renovar dos de los 4 representantes de los padres y las madres.

Dentro de cada grupo representado se utilizan diferentes formas para realizar el proceso, ya que la cantidad de electores y candidatos suele ser bastante limitada. El proceso para elegir a los y las representantes de los padres y las madres, en cambio suele ser algo más compleja, por justo lo contrario: los 1.688 alumnos y alumnas de Asti Leku tienen 2.439 posibles candidatos y electores, entre madres, padres o tutores legales. Por lo tanto, ese dato complica el proceso de elección de sus representantes.

Del 26 de octubre al 8 de noviembre, todos los padres y madres tuvieron abierto el plazo para presentar su candidatura, tal y como se les comunicó en una circular: se presentaron 7 personas, 5 madres y 2 padres.

El 9 de noviembre, mediante una circular, se les enviaron a los padres y a las madres las explicaciones para dar el voto y las papeletas correspondientes.

Así, el 15 y el 16 de noviembre se realizaron las votaciones para elegir 2 representantes de los padres y las madres. Posteriormente, el 20 de noviembre se realizó el recuento de los votos, y las elegidas han sido Leire Agirre y Leire López.

Los miembros del Nuevo Consejo Escolar son los siguientes:

- Consejo Rector: Oskar García, Josefina San Miguel y Leire San Martín.
- Representantes de los trabajadores:
    - Profesorado: Karmele Martitegi, Eneko Olabarria, Estibaliz Solatxi y Batirtze Ibañez.
    - Administración y Servicios: Zuriñe Arruza.
- Representantes del alumnado: Naia Garcia y June Jaureguibeitia.
- Representantes de los padres y las madres: Sara Susial, Seine García, Leire Agirre y Leire López.
- Director Pedagógico: Iñaki Vázquez.

Se ha constituido el 11 de diciembre. De este momento en adelante, este Consejo Escolar tiene una labor que realizar durante dos cursos. Dentro de dos cursos nos encontraremos de nuevo en el mismo proceso.

¡Ánimo y muchas gracias a todas y a todos!

**ZUZENDARITZA TALDEA**

# 2018, BERRITASUN HANDIKO URTEA GURE PLANTILLARENTZAT

*2018. URTEAN AURRE ERRETIROA HARTU DUTE URTE LUZEZ GURE IKASTOLA GAUR DENA IZATERA IRISTEKO LAN EGIN DUTEN PERTSONA ASKOK. HAMABI HILABETE HAUETAN BAKARRIK, BEGOTXU ARGEDAS, ARANTZI LOPATEGI, AMELI IBEAS, IZASKUN ETXANIZ, ELI MENDIOLA, JUAN CARLOS NABERAN, KARMELO IRIONDO, GOTZONE EGIA, MERTXE IZAGIRRE, MARISA SANZ ETA JOSE ANGEL MENTXAKA IZAN DIRA.*

Argi dago IKUSI MAKUSIko artikulu labur batekin nekez adieraz daitekeela ikastolaren esker ona guztiek egin duten lan eskergagatik. Haien laguntasuna eta legatua geratzen zaizkigu. Asti Lekuk haien etxea izaten jarraituko du eta bisitan espero ditugu.

Plantillaren berrikuntza 2009. urtean hasi zen, eta hamar urte eskasetan 30 langilek hartu dute erretiroa. Hala, Asti Leku berritzen joan da eta andereño eta maisu asko etorri dira, baita administrazio eta zerbitzuetako langileak ere; horietako asko ikastolako ikasle izandakoak.

Besterik gabe, ikasturte honen hasieran kontratazio kopuru handi samar bat egin behar izan zen aldaketa horiei aurre eiteko. Orain gurekin dira HHn Naroa García, Peio Ugarte, Izaskun Santos, Patricia Bermejo, Elena San Miguel eta Eztizen Garai. Irailean Oihane Rengel, Usoa Durañona, Xabier Otiñano eta Iratxe Sanz iritsi ziren LHra. DBHn Vanesa Rodríguez, Eneritz Mancisidor, Miriam Estévez eta Eider Urrutia ditugu. Aipaturikoez gain, hainbat profesional gazte ari da tarteka gurean sartzen, taldeak dituen premien arabera.

Hitz hauen bitartez gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu ondo merezitako erretiroa hartzen ari direnei, eta ongi etorria esperientziaz, erronkaz eta poztasunez beterik egongo den ibilbide profesionalari hasiera eman diotenei.

***Aipamen berezi eta maitekorra egin nahi diegu urte hauetan utzi gaituzten langileei: Joseba Vicario, Encarni San Millán, Ramón de la Presa, Arantza Martínez eta Fernando Valgañón.***

**JESÚS BILBAO**
*IKASTOLAKO ZUZENDARI OROKORRA*







EQUIPO DE DIRECCIÓN




*Eskerrik asko urteko (aurre)erretiratu guztiei!!! Begotxu Argedas, Arantzi Lopategi, Ameli Ibeas, Izaskun Etxaniz, Eli Mendiola, Juan Carlos Naberan, Karmelo Iriondo, Gotzone Egia, Mertxe Izagirre, Marisa Sanz eta Jose Angel Mentxaka.*

*Eskerrik asko a todos los (pre)jubilados-as del año!!! Begotxu Argedas, Arantzi Lopategi, Ameli Ibeas, Izaskun Etxaniz, Eli Mendiola, Juan Carlos Naberan, Karmelo Iriondo, Gotzone Egia, Mertxe Izagirre, Marisa Sanz y Jose Angel Mentxaka.*

# 2018 UN AÑO CON MUCHAS NOVEDADES EN LA PLANTILLA

*EL AÑO 2018 HA ESTADO MARCADO POR LAS PREJUBILACIONES ANTICIPADAS DE MUCHAS PERSONAS QUE HAN CONTRIBUÍDO DURANTE AÑOS A QUE NUESTRA IKASTOLA SEA LO QUE HA LLEGADO A SER HOY EN DÍA. SOLAMENTE EN ESTOS DOCE MESES, BEGOTXU ARGEDAS, ARANTZI LOPATEGI, AMELI IBEAS, IZASKUN ETXANIZ, ELI MENDIOLA, JUAN CARLOS NABERAN, KARMELO IRIONDO, GOTZONE EGIA, MERTXE IZAGIRRE, MARISA SANZ Y JOSE ANGEL MENTXAKA.*

Evidentemente, en un breve artículo de IKUSI MAKUSI difícilmente se puede expresar el agradecimiento de la ikastola a la labor desempeñada por todos ellos. Nos queda su amistad y su legado. En Asti Leku tienen todos-as su casa y esperamos su visita.

Esta renovación de plantilla comenzó en el año 2009 y en menos de una década se han ido jubilando hasta 30 trabajadores-as con lo que la plantilla de Asti Leku se ha ido renovando con nuevas andereños y maisus –además de personal de administración y servicios- muchos de ellos antiguos alumnos y alumnas de la propia ikastola.

Sin ir más lejos al comienzo de este curso se tuvieron que realizar un buen número de contrataciones derivadas de estos cambios. Están ahora con nosotros en HH Naroa García, Peio Ugarte, Izaskun Santos, Patricia Bermejo, Elena San Miguel y Eztizen Garai. A LH han llegado septiembre Oihane Rengel, Usoa Durañona, Xabier Otiñano e Iratxe Sanz. En DBH tenemos a Vanesa Rodríguez, Eneritz Mancisidor, Miriam Estévez y Eider Urrutia. Junto a los citados, además otro buen número de jóvenes profesionales que se están incorporando de modo algo más esporádico, según las necesidades del equipo.

Valga esta reseña para expresar agradecimiento a los que se van marchando a la merecida jubilación y también para dar la bienvenida a aquellos que empiezan con nosotros una carrera profesional que a buen seguro estará llena de experiencias, retos y satisfacciones.

***Una mención muy especial y con mucho cariño para los trabajadores-as que nos han dejado en estos años: Joseba Vicario, Encarni San Millán, Ramón de la Presa, Arantza Martínez y Fernando Valgañón.***

## KLUBA



# NUEVOS EQUIPOS FEDERADOS DE FÚTBOL Y BALONCESTO



*ESTA TEMPORADA 2018/2019 EL CLUB ASTI LEKU HA RECUPERADO DOS CATEGORÍAS FEDERADAS, UNA EN BALONCESTO (CADETE FEMENINO) Y OTRA EN FÚTBOL (REGIONAL MASCULINO).*

Desde su fundación en 1983 en el seno del proyecto global de la cooperativa, el Club Asti Leku ha paseado con orgullo el nombre de Asti Leku por toda la geografía de Bizkaia. Aquella primera temporada 1983/84 se conformaron tres equipos de fútbol (el baloncesto llegaría un año después con un equipo junior femenino).

Han pasado 35 años, durante los cuales se han logrado decenas de campeonatos y ascensos de categoría, pero lo que más orgullo nos provoca es el hecho de haber formado varios miles de jóvenes.

Esta temporada 2018/2019 hemos conseguido además recuperar dos categorías federadas: un equipo de fútbol Regional masculino –categoría en la que Asti Leku se estrenó en 2007/08- y un equipo Cadete femenino de baloncesto –el 1° se constituyó en 1986/87-.

Asti Leku regresa a estas dos categorías gracias al trabajo de los últimos años desde las escuelas de fútbol y baloncesto de la ikastola, pasando por las categorías de deporte escolar y, en el caso del fútbol, posteriormente por las categorías de la base del club.

Estos jugadores y jugadoras, provienen mayoritariamente de nuestra cantera, por lo que tienen un profundo sentimiento de pertenencia, un valor fundamental para alcanzar y mantenerse en las categorías superiores. Además de la recuperada categoría federada, esta temporada el baloncesto de Asti Leku tiene 5 equipos, sumando un total de más de 80 jugadores-as.

En fútbol tenemos en torno a 325 jugadores-as repartidos en 11 equipos de deporte escolar, 5 federados y 2 en la escuela de fútbol.

En unos tiempos en los imperan la prisa y el ansia de notoriedad efímera, en Asti Leku priorizamos la importancia del trabajo bien hecho, el esfuerzo, la constancia, el "hacer equipo", el respeto, el sentimiento de pertenencia… Valores que nos acompañan generación tras generación y que hacemos extensibles a nuestras relaciones con otras entidades e instituciones del entorno (deportivas, escolares, sociales, culturales…) con quienes colaboramos para promover el deporte en nuestra villa (Portukirolak, CB Oribeltza, Kanpazar, Club Portugalete…).



LANGILEENAK

# HEZKIDETZA TALDEA
## MARTXAN DA!

*AURREKO URTEETAN JADA IKUSI DUGU IKASTOLAN HEZKIDETZA LANTZEKO ZENBAIT EKIMEN BURUTU DIRELA, BATEZ ERE, HORREN IKUR DIREN BI EGUNIK ADIERAZGARRIENAK OSPATZEKO: AZAROAK 25 ETA MARTXOAK 8. HORRETAN LANEAN JARRAITZEKO ASMOZ, AURTEN ETAPA ANITZETAKO IRAKASLEAK ZEIN IRAKASLE EZ DIREN KIDEAK BILDU DIRA ETA LAN-TALDE EDERRA SORTU DUTE!*

**ENERITZ MANCISIDOR**

Taldeak zenbait helburu zehatz dauzka: alde batetik, gizartean bor-borean dagoen gai hau agerian uztea ikasleen kontzientzia piztu eta hausnarketarako tartea eskaintzeko. Bestetik, feminismoa eta hezkidetza Ikastolan sustatzea eta horiek dakartzaten balioak zabaltzea. Lehenik eta behin, azaroaren 25eko plangintzarekin hasi dira. Aurten igandea izango denez gero, Asti Lekuko txikienek aurreko astean ospatuko dute eta DBH eta Batxilergokoek, berriz, azaroaren 26an.



Horrez gain, luzera begira ere zenbait asmo adierazi dituzte taldekideek. Hasteko, eta Ikastolak argi duenez hezkidetzaren eta hezkuntzaren arteko lotura estua dela, bai arlo formalean zein informalean Asti Lekuko eragile guztiekin landu ahal izatea. Gainera, urte osoan ekintza anitz antolatzea, ez bakarrik azaroaren 25ean eta martxoaren 8an, baita ikasturte osoan zehar ere.

Bukatzeko, parte hartzeko gogoa duen edozeini gonbidapena luzatu nahi diote, guztien ekarpenak aberasgarriak izan baitaitezke. Bien bitartean, lanean jarraituko dute, beraz, aurrerantzean izango duzue euren berri!

# YA ESTÁ EN MARCHA “HEZKIDETZA TALDEA”
## DE ASTI LEKU

***ESTE EQUIPO DE PROFESIONALES SE HA FORMADO PARA, POR UN LADO CONCIENCIAR A NUESTRO ALUMNADO DE LA IMPORTANCIA DE LA COEDUCACIÓN Y LA IGUALDAD, Y POR OTRO LADO PARALELAMENTE FOMENTAR Y PROMOVER EN LA IKASTOLA ESTOS VALORES.***

***ADEMÁS DE ACTUACIONES PUNTUALES, COMO LA DEL 25 DE NOVIEMBRE, QUIEREN MANTENER UN TRABAJO CONTINUADO A LO LARGO DE TODO EL CURSO Y QUE SE EXTIENDA A TODOS LOS GRUPOS Y ÁMBITOS DE LA IKASTOLA.***

***EN ESTE SENTIDO, NOS ANIMAN A COLABORAR CON NUESTRAS PROPUESTAS Y APORTACIONES, LAS CUALES RECALCAN, “SON SIEMPRE ENRIQUECEDORAS”.***

**IKASLE OHIAK**

# ASIER ALCEDO
## BERTSO ETA KOPLETARA GRINATUTA

*ASIER ALCEDOK ASTI LEKUN EMAN ZITUEN BERE LEHENENGO PAUSUAK BERTSOEKIN. IZAN ERE, GARAI HARTAN IKASTOLAN SORTUTAKO BERTSO ESKOLAKO IKASLEA IZAN ZEN. EGUN, IKASTOLAN DUGU BERRIRO BAINA, ORAINGO HONETAN, BERTSOLARITZA IRAKASLE.*




Asierrek txikitatik bizi izan du etxean koplen eta bertsoekiko atxikimendua. Horrexegatik ikastolako LHko 6. mailan Juanjo Respaldiza geletara joan zitzaienean bertsolaritzaren oinarrizko eskolak ematera berehala sentitu zuen “bertsoen deia”, eskolaz kanpokoetako bertso eskolaren sorrera bultzatu zuten ikasleetariko bat izan zelarik, baita, nola ez, parte-hartzailea ere.

Ordutik hona hamar urte igaro badira ere, Alcedok (Portugalete, 1996) hasierako ilusio berberarekin jarraitzen du eta orain, bere eskarmentua partekatuz, Asti Lekuko ikasleekin nahiz beste hainbat ikastetxetakoekin ibiltzen da bertso, kanta eta koplekiko grina kutsatzen ahalegintzen.

Irakasteaz gain, txapelketen emozioa eta “beldurra” ere ederto ezagutzen ditu Asierrek. Batxilergoan zegoelarik Bizkaiko eskolartekoan hartu zuen parte, finalerako “txartela” Algortan irabazita. Gernikan lehiatutako finalean gaizki pasatu zuen, eskarmentu faltak jota seguru aski, eta pixka bat baztertuta utzi bazuen ere, aurten berriro animatu da eta Bizkaiko Bertsolarien Txapelketako 1. fasea gainditu zuenez, azaroaren 4an 2. fasean lehiatu ahal izan zen Berriatuan.

Baina berarekin izan dugun elkarrizketan aitortu digunez, lehiatzea baino oholtzara igo eta jendaurrean abestea du benetan gogoko.

***Asti Leku: Asier, duela “lau egun” ikasle eta orain bertsolaritza irakasle zaitugu Asti Lekun...***
*Asier Alcedo: Bai, Bertsozale elkartean nabil lan egiten eta bertatik bideratzen ditugu eskualdeko ikastetxe batzuetako bertsolaritza prestakuntza. Asti Lekun ezezik beste hainbat tokitan ere nabil, esate baterako Itxaropena ikastolan, Buenavistan, Barakaldoko San Juan Boscon…*

***AL: Zure ikasleak ere, zure garaian bezala, LHko 6. mailakoak dira, ezta? Zer aldatu da ordutik hona?***
*AA: Mamia eta edukiak berberak dira baina baliabideak eta ikasleen jarrerak, aldiz, oso bestelakoak. Batetik, irakaskuntzako ikus-entzunezko material asko daukagu, batez ere bertsoikasgela.eus-ekoa, eta honek izugarri laguntzen du. Baina, bestetik, ikasleek saio dinamikoagoak behar izaten dituzte, ekintza anitzekoak. Lehen saio osoa ematen genuen kopla bat ikasten eta orain, berehala aspertzen direnez, ariketa ezberdinak sartu behar dituzu saio berean.*

***AL: Zelan topatu dituzu Asti Lekuko ikasleak, zer zekiten bertsolaritzaz?***
*AA: Zentzu horretan oso pozik nago. LHko 6. mailakoek lehenengo hiruhilekoan bertsolaritza ikasten dute eta ni hasi orduko ikasita daukate teoria. Honek eramaten gaitu zuzenean eskola praktikoekin hastera.*

***AL: Nolako helburuak dakartzazu ikasle hauentzat?***
*AA: Ikasleen jakingura piztu nahi nuke, eta ilusioa ahal den neurrian, ikastaro honekin bukatutakoan bide honetatik jarrai dezaten.*

***AL: Honen harira, nola ikusten duzu eskualdeko harrobia?***
*AA: Eskualdean nire belaunaldiko batzuk bagara, baita Bizkaiko gainontzekoetan ere, baina ez dugu ahaztu behar etorkizuna ekinean besterik ez dela eraikitzen eta horretantxe nauzue Asti Lekun, ekinaren ekinaz gure lekukoa hartuko duten neska-mutilen grina elikatzen.*

***Asti Lekuko saio baten laburpentxoa dakarkizuegu bideo honetan:***



*ANTIGUOS ALUMNOS*

# PASIÓN POR EL BERSOLARISMO

*ESTE JOVEN EXALUMNO DE ASTI LEKU (PORTUGALETE, 1996) DESDE PEQUEÑO HA VIVIDO EN CASA ENTRE "KOPLAK, KANTAK ETA BERTSOAK", POR ESO CUANDO ESTANDO EN SEXTO DE PRIMARIA RECIBIÓ SUS PRIMERAS CLASES DE BERTSOLARITZA EN ASTI LEKU DE LA MANO DE JUANJO RESPALDIZA SUPO QUE LOS VERSOS Y ÉL SIEMPRE IRÍAN DE LA MANO. AÑOS MÁS TARDE, YA EN BACHILLERATO PARTICIPÓ EN LA FINAL INTERESCOLAR DE BIZKAIA TRAS HABER GANADO EN ALGORTA, CON UNA BRILLANTE ACTUACIÓN.*

*TRAS UNA TEMPORADA ALEJADO DE LAS COMPETICIONES, ESTE MISMO AÑO, A PRIMEROS DE NOVIEMBRE, HA PARTICIPADO EN LA SEGUNDA FASE DEL CAMPEONATO DE BIZKAIA TRAS UNA BUENA ACTUACIÓN EN LA FASE DE PRIMAVERA.*




No obstante, Asier nos deja claro que lo que realmente le gusta, más que la propia competición, es subirse al escenario y cantar sus versos, sobre todo delante de los jóvenes, para fomentar su afición y, de paso, tener más tablas y recursos para compartir en clase con sus alumnos y alumnas.

Eso es exactamente lo que hace en Asti Leku. Este curso 2018-2019 Asier imparte clases de bersolarismo en la ikastola en sexto de primaria."Las clases ahora tienen que ser más variadas y dinámicas, adaptadas a los nuevos tiempos y tecnologías. Antes podíamos tirarnos horas aprendiendo un verso, cosa impensable a día de hoy. Afortunadamente disponemos de abundante material audiovisual, sobre todo en bertsoikasgela.eus gracias a la labor recopilatoria de bertsozale elkartea, donde trabajo como profesor de varios centros escolares, entre ellos Asti Leku."

Respecto al futuro del bersolarismo en nuestra comarca, Asier nos comenta que en su generación son unos cuantos, pero hay que seguir trabajando.

Como él, con dedicación, ilusión y nuevas ideas.



**CRISTINA ROY**

## HIZKUNTZA PROIEKTUA




**IÑAKI VÁZQUEZ**
*IKASTOLAKO ZUZENDARIA*

# ASTI LEKU
## ERE EUSKARALDIAREKIN

*AZAROAREN 23TIK ABENDUAREN 3RA BITARTEAN EUSKARAREN ERABILERAREN ALDEKO KANPAINARIK HANDIENA BURUTU DA EUSKAL HERRIKO BAZTER GUZTIETAN. EUSKARALDIAREN AMAIERAK EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREKIN BAT EGIN DU ETA AURREKO 11 EGUNETAN ZEHAR GARATU DA. HAMAIKA EGUN, MILA EGUN… HAMAIKA ALDIZ, MILA ALDIZ. GUZTIOK ULERTU BEHAR DUGU MEZU HONEN ATZETIK DAGOEN BENETAKO ESANAHIA: EUSKARA GURE AHOETATIK ETA GURE BELARRIETATIK ETENGABE IGAROTZEA.*





## *PROYECTO LINGÜÍSTICO*

Gauzak horrela, Asti Leku Ikastolak, bere izaeraren barruko bereizgarria euskara bera bada, arreta berezia eskaini behar zion ekintza honi. Beraz, ikastolako agente guztiek, modu batetik edo bestetik, ikastolarekin batera kanpaina honetan parte hartzeko gonbidapena izan dute: langileek, gurasoek eta ikasleek.

Ikasleei dagokienez, bi modu ezberdinez hartu dute parte. Alde batetik 16 urte baino gehiago duten batxilergoko ikasleek kanpainan izena eman zezaten, kanpaina bera azaldu genien geletan, parte hartzeko bideak eta argudioak emanez. Bestalde, 16 urtetik beherakoekin ekintza eta jarduera ezberdinak egin genituen, etapa eta mailaren araberakoak, batzuk EUSKARALDIA hasi baino lehen, eta beste batzuk ospatu bitartean.

Gurasoei begira, euskararen igorleak ez ezik, euskararen aldeko jarrera positiboa erakusteko aukera ere izan zezaten, gizarte mailan erabili diren baliabideez gain, ikastolan ditugun tresnak ere abian jarri genituen: guraso bileretan informazioa zabaldu, zirkular ezberdinak gure plataforman sartu, ikastola EUSKARALDIAren logo eta berriekin apaindu…

Eta langileok ere euskaren aldeko gure konpromisoa adierazi nahi izan dugu kanpaina honetan protagonismoa hartuz: AHOBIZI izan gara 11 egun hauetan, aurreko 11 egunetan izan garen bezala, eta hortik aurrera egongo diren gainontzeko 11 egunetan; BELARRIPREST izan direnei euskaraz egin diegu, eurek ere euskara apur bat gehiago egin zezaten, eta ahal den neurrian, apur bat gehiago ere ikas zezaten.

Kanpaina handi honek eduki duen arrakasta begi-bistan dago: har dezagun Euskaraldiaren lekukoa eta izan gaitezen une oro, ahobizi eta belarriprest!
















*A LO LARGO DE 11 DÍAS, LOS MISMOS QUE LETRAS TIENE EUSKARALDIA, SE HA DESARROLLADO EN TODO EUSKAL HERRIA ESTA NOVEDOSA CAMPAÑA PARA AUMENTAR EL USO DE NUESTRA LENGUA.*

IKASLE-TRUKEAK

# ASTI LEKU
## MUNDURA BEGIRATZEN DUEN IKASTOLA



*ATZERRIAN OIHARTZUNA ETA HARREMANAK IZATEA BALIO HANDIKOA DELA USTE DUGU ASTI LEKUN. HORREXETARAKO, HAU DA, GURE IKASLE ETA FAMILEKIN DAUKAGUN KONPROMISOARI ERATZUNA EMATEKO, ANTOLATU ETA GARATZEN DITUGU IKASLE-TRUKEAK KANPOKO IKASTETXE ETA KULTUR ERAKUNDEEKIN.*

2018-2019 ikasturtean zehar DBHko 2. eta 3. eta batxilergoko 1. mailan, Europa mailako ikasle-trukeei lotutako lau proiektu garatuko ditugu.

Ikasle truke guztietan familien etxeetan ostatatzen dira, ekintzen egitaraua gazteek ikasi eta ondo pasatu dezaten eratuta dagoelarik.

Egitasmo guztien helburu orokorren barruan honako hauek topatuko ditugu beti: parte-hartzaileen garapen pertsonalari laguntzea motibazio eta interes berriak sortuz; beste pertsonekin komunikatu eta harremanak izateko trebetasuna lantzea, atzerriko hizkuntza batean, noski -normalean frantsesa eta ingelesa-; hau guztia, gainera, kulturarteko balioen esparruan kokatuta eta hezkuntza egitura formalaren osagarria izanik, gure ikasleek osoko garapena izan dezaten.





**ZURIÑE ARRUZA**
*IKASLE-TRUKEEN ARDURADUNA*

INTERCAMBIO DE ALUMNOS

# UNA IKASTOLA QUE MIRA AL MUNDO

*EN LA IKASTOLA DAMOS VALOR A LA APERTURA A CONTACTOS E INTERCAMBIOS CON CENTROS EDUCATIVOS E INSTITUCIONES CULTURALES EN EL ÁMBITO INTERNACIONAL. DESARROLLAMOS PROYECTOS DE MOVILIDAD JUVENIL EN LAS ETAPAS DE ESO Y BACHILLERATO QUE DAN RESPUESTA A ESTE COMPROMISO DE LA IKASTOLA CON EL ALUMNADO Y LAS FAMILIAS.*

Este curso 2018-2019 vamos a tener la oportunidad de organizar cuatro proyectos de intercambio europeos con el alumnado de 2° y 3° de secundaria y de 1° de bachillerato.

En 2° de secundaria 13 estudiantes tendrán la oportunidad de participar en un encuentro con el centro Casteller de Postioma (Italia) y durante las dos semanas de convivencia en familias, una en cada país, desarrollarán un programa de actividades orientado a trabajar temas de educación intercultural.

En 3° de esta misma etapa 20 alumnos y alumnas participarán en un intercambio con el centro Main Limes de Obernburg (Alemania) y este año tratarán el tema del uso de las redes sociales por parte de los jóvenes.

Trece estudiantes de 1° de bachillerato viajarán a Caen (Normandía) para trabajar sobre el compromiso individual y colectivo, y será de especial relevancia realizar un repaso de la historia de ambos países.

Y, por último, otros 20 alumnos y alumnas de 1° de bachillerato entenderán mejor la importancia del aprendizaje de lenguas y contarán con un grupo de veinte alumnos de la "Bergen Cathedral Schole" para poner en práctica lo que aprenden en clase.

En todos los intercambios el alojamiento es en familias y el programa de actividades siempre combina aprendizaje y diversión. Los objetivos generales de todos los proyectos incluyen: contribuir al desarrollo personal de los participantes y generar nuevas motivaciones e intereses; desarrollar la habilidad para comunicarse y relacionarse con otras personas y hacerlo en una lengua extranjera -francés o inglés-. Todo ello en el marco de la educación intercultural en valores y como complemento a la estructura formal de enseñanza con el objetivo final de desarrollo integral de nuestros alumnos y alumnas.





## NUTRIZIOA ETA OSASUNA



**NEREA MUGIDA**
*ASTI LEKUKO NUTRIZIONISTA*

# DIETA OREKATUAREN GARRANTZIA

Hau guztia badakigu denok, neurri batean edo bestean, baita patroi hauek haurtzaroan ondo finkatzeak eragin handia izango duela bizitzan zehar mantenduko ditugun ohituretan. Horrela bada ere, zaila egiten zaigu oinarrizko praktika onak ohitura bihurtzea.

Honetaz ohartuta eta eskola-jangela elikaduraren jokaera ereduak proposatzeko leku egokia delakoan, Asti Lekuko jantokia janari orekatu eta elikagarriak ematen dituen tokia izateaz gain heziketa-eremuaren elementua ere izan dadin ahalegintzen gara. Horrela, ikastolako jangela umeekin berrelkartzen duen lekua izatetik heziketa-giroa sor daitekeen tokia izatera pasatu da.

Jantokiko bazkariari dagokionez, garrantzitsua da jakitea honek eguneko balio kalorikoaren %30-35 bakarrik batzen duela eta %100eraino falta dena gainontzeko otorduekin osatu behar dela (gosaria, askaria eta afaria). Beraz, ez da nahikoa era orekatuan ikastolan bakarrik jatea baizik eta egunean zehar egiten diren beste otorduetan ere.

Hona hemen eguneko otorduak prestatzerakoan lagungarri izango zaizkizuen dietari orekatuari buruzko hainbat gomendio:

- Ekarpen kaloriko egokia adinaren eta jardueraren fisikoaren arabera ziurtatzea.
- Makronutrienteen proportzio zuzena mantentzea.
- Zuntz-kontsumo egokia ziurtatzeko karbohidrato konplexuak ematea. Horretarako, zereal, barazki eta egoskarien ekarpena sustatuko da.
- Fruta ahalik eta freskoen hartzea eta ahal den neurrian ale osoak; naturalak ez diren zukuen kontsumoa zein karbohidrato sinpleak dituzten produktu industrialena mugatzea.
- Koipeari dagokionez, haragiaren eta eratorrietako koipea kentzea eta astean bitan gutxienez arraina jatea.
- Oliba-olioaren kontsumoa bultzatzea, gantz-azido monoasegabeak dituelako.
- Opil industrialeko produktu kontsumoa murriztea ere aholkatzen da.
- Aukera-edari bezala ura ematea.
- Bitaminen eta mineralen ekarpen zuzena ziurtatzea.
- Gatz-kontsumoa moderatzea.

## SALUD Y NUTRICIÓN

*DIETA EGOKIA ELIKAGAIAK ERA OREKATUAN KONBINATUZ LORTZEN DA ETA ERAGIN NABARMENA DAUKA GURE OSASUNEAN, ARE GEHIAGO TXIKIEN ETA GAZTEEN HAZKUNDE ETA GARAPENEAN. GAINERA OINARRIZKO NUTRIZIO GAIXOTASUNAK EKIDITEN EDO, BEHINTZAT ARINTZEN, LAGUNTZEN DU (GIZENTASUNA, IDORRERIA, ELIKADURA-JOKAERAREN GORABEHERAK…).*





*UNA ALIMENTACIÓN SALUDABLE ES AQUELLA QUE PERMITE ALCANZAR Y MANTENER UN FUNCIONAMIENTO ÓPTIMO DEL ORGANISMO, CONSERVAR O RESTABLECER LA SALUD Y DISMINUIR EL RIESGO DE PADECER ENFERMEDADES.*



En el comedor de Asti Leku, conscientes de la importancia de una dieta equilibrada, además de ofrecer los alimentos y nutrientes de manera saludable y proporcinada, tratamos de educar a los alumnos y alumnas para que adopten desde temprana edad unos hábitos alimenticios que les acompañarán toda la vida.

Conviene saber que el aporte calórico de la comida del jantoki es apróximadamente de un 30-35% del total diario, por lo que es fundamental que el resto de las comidas que se realizan a lo largo del día sean igualmente equilibradas.




**ITURRIA**
*EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA*

## IKASLEENAK

# AINARA POZAK
## ASTI LEKUKO BAL PROIEKTUA AURKEZTEN DIGU



*AINARA POZAK AURREKO IKASTURTEAN BUKATU ZUEN BATXILERGOA ASTI LEKUN ETA ORAIN DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN DAGO INGENIARITZA IKASTEN, INDUSTRIA DISEINUA, HAIN ZUZEN.*

*INGENIARIA IZAN NAHI ZUELA ARGI ZEUKANEZ BATXILERGOKO BAL PROIEKTUAN "MATXISMOA GURE GIZARTEAN ETA INGENIARITZAN" GAIA LANDU ZUEN.*

Asti Lekuren BAL proiektua ikasleen ikuspegitik ezagut dezagun elkarrizketa bat eduki dugu berarekin. Eta ez hori bakarrik, bere aurkezpenean erabilitako materiala ere ekarri digu.

***Asti Leku: Hitz gutxitan laburbilduta, zelan azalduko zenioke honetaz ezer ez dakien bati zer den/zertan datzan Asti Lekuko BAL proiektua? (helburuak, nola garatzen den, nola ebaluatzen den...).***
*Ainara Poza: BAL proiektua Batxilergoko bi urteetan zehar egiten den lana da, ostean jasotako notaren arabera Batxilergoko media igotzen laguntzen dizuna. Lehenik mintegi bat aukeratzen duzu, nire kasuan, Ingeniaritza, eta gero lan idatzia eta ahozkoa garatu behar dituzu. Gustuko duzun gai bat aukeratzen duzu, aukeratutako mintegiarekin erlazionatuta dagoena, noski.*

***AL: Zein gai aukeratu zenuen zurerako? Zergatik?***
*AP: Aukeratu nuen gaia "Matxismoa gure gizartean eta ingeniaritzan" izan zen. Betidanik nahi izan dut ingeniaritzaren bat ikasi, baina askotan entzun dut ingeniaritza "gizonezko mundua dela orokorrean". Horregatik, emakumearen egoera arlo honetan nolakoa den aztertu nahi izan nuen.*

***AL: Nola burutu zenuen proiektua? Zein urrats eman zenituen?***
*AP: Lana lau ataletan banatu nuen. Alde batetik zenbait definizio eman nituen. Horren ostean Martxoaren 8ari buruz eta lehenengo emakume ingeniariei buruz hitz egin nuen. Gero, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak kopuru aldetik arlo ezberdinetan aurkeztu nituen era grafikoan. Eta azkenik, gizon eta emakume ingeniariei galdera batzuk egin nizkien, haien egoera aldaratzeko.*

***AL: Eta aurkezpena, nola prestatu zenuen?***
*AP: Aurkezpena prestatzerakoan ideia bakarra nuen buruan, jendea kontzientziatzea. Bi bideo egin nituen, eta amaieran hiru edalontzirekin aurkezpen laburra egin nuen, egungo egoera salatu nahian.*

***AL: Zer deritzozu Asti Lekuk sortutako proiektu honi?***
*AP: Asko lan egin behar da, baina gustuko duzun gai bat jorratzen baduzu, oso ondo dago.*

***AL: Zuri zertan lagundu zizun? Ikasketak aukeratzen...?***
*AP: Emakume ingeniariari galderak egitera joan nintzenean, Industria diseinuko ingeniaritza aurkeztu zidan. Nik ez nuen ezagutzen, baina horixe da gaur egun ikasten dudan karrera.*

***AL: Itzuliko al zara Asti Lekura, beste ikasle ohi batzuek zurekin egin zuten bezala, BAL proiektuarekin laguntzera, hau da, ikasleentzako hitzaldiak ematera?***
*AP: Deitzekotan bai, azkenean ikasten ari naizen karrera ez da oso ohikoa ezta ezaguna ere, eta ni bezala dagoen edonori lagundu diezaioket.*

CRISTINA ROY

## ALUMNAS




# AINARAREN BAL PROIEKTUA

*AINARAK, BAL PROIEKTUA ZERTAN DATZAN HOBETO ULER DEZAGUN, BERE AURKEZPENEAN ERABILITAKO MATERIALA EKARRI DIGU.*

# AINARA POZA
## PRESENTA SU PROYECTO BAL DE BACHILLERATO

*AINARA TERMINÓ BACHILLERATO EN ASTI LEKU EL CURSO PASADO Y AHORA SE ENCUENTRA ESTUDIANDO INGENIERÍA INDUSTRIAL EN LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO.*

*COMO TENÍA CLARO QUE QUERÍA SER INGENIERA, ELIGIÓ PARA SU PROYECTO BAL EL TEMA "EL MACHISMO EN LA SOCIEDAD Y EN INGENIERÍA".*

Hemos pedido a Ainara que comparta con nosotros su trabajo para ayudarnos a conocer desde el punto de vista de un estudiante qué es y en qué consiste el proyecto de bachillerato BAL de Asti Leku. Un proyecto propio, creado por nuestra ikastola para ayudar a los alumnos y alumnas a decidir sobre su futuro académico y laboral.

Para ello, además de contestar a nuestras preguntas Ainara nos ha aportado todo el material que utilizó en la presentación.

A lo largo de la conversación nos cuenta que desde siempre había querido estudiar ingeniería, pero que todo el mundo le decía que ese era un mundo de hombres. Por ese motivo decidió investigar cuál era la verdadera situación en este ámbito y desarrollar su proyecto en torno al machismo, en general, y en ingeniería en particular.

Fue durante la recogida de información, tras entrevistar a una ingeniera, cuando supo que existía la carrera de Diseño Industrial, que es la que finalmente decidió estudiar.






## LIBURUAK



# MIKEL SANTIAGO
## REMEMORA SU ÉPOCA DE ALUMNO DE ASTI LEKU



*EL POLIFACÉTICO ESCRITOR PORTUGALUJO MIKEL SANTIAGO NOS VISITA PARA CHARLAR CON NOSOTROS SOBRE SU ÉPOCA DE ESTUDIANTE EN ASTI LEKU. HA PASADO YA UN CUARTO DE SIGLO DESDE QUE ESTE INQUIETO NOVELISTA PISÓ LA IKASTOLA POR ÚLTIMA VEZ Y LAS EMOCIONES Y RECUERDOS SE AGOLPAN CON CADA PASO Y CADA REENCUENTRO.*



**CRISTINA ROY**

El pasado mes de noviembre nos visitó el antiguo alumno de la generación del 93 de Asti Leku Mikel Santiago, exitoso escritor de thriller, novela negra y fantasía que acaba de publicar su última obra, ***La isla de las últimas voces***, la cuarta, tras ***La última noche en Tremore Beach*** (2014), ***El mal camino***(2015) y ***El extraño verano de Tom Harvey*** (2017), publicadas en español y traducidas a varios idiomas. Además, algunos de sus relatos en formato electrónico han estado en las listas de los 10 más vendidos de Estados Unidos.

"Han pasado 25 años desde que cogí las notas de selectividad y salí disparado de la ikastola. Desde entonces he vivido en diferentes países y visitado muchos lugares, pero no había vuelto a estar en Asti Leku" -nos dice Mikel, cuyos recuerdos y anécdotas se van agolpando y acelerando con cada paso y cada abrazo. Todo le fascina, lo que ha cambiado y lo que sigue igual, las cosas que vivió y cómo los recuerda hoy.

Mikel charla entusiasmado de su paso por Asti Leku, tiene tantos buenos recuerdos… Como cuando recibió su primer premio literario –"Sólo he recibido dos premios como escritor, y el primero lo gané en la ikastola; fue con una redacción sobre los Carnavales, y recuerdo como si fuera hoy el momento en que me lo entregaron el día de Asti Leku. Por aquel entonces ya escribía, aunque me daba más por la poesía"-.

"De esa época tengo también un recuerdo muy especial de mi andereño Begoña Arguedas, en quien he pensado muchas veces. De adulto te das cuenta de lo importantes que son nuestros profesores y profesoras, de cómo nos marcarán para el resto de nuestra vida. Cómo nos comportamos, cómo nos dirigimos a las personas… De ello hablo también en mi última novela, ***La isla de las últimas voces***"-recalca Mikel.

Este polifacético y autodidacta novelista ha compaginado desde muy joven sus estudios con sus tempranos hobbies (la escritura, la música y el software). –"Soñaba con ser roquero y he acabado siendo escritor; no está nada mal, me siento muy feliz con lo que hago y con cómo vivo". En este sentido Mikel nos cuenta que fue precisamente en Asti Leku donde empezó a tocar la guitarra. –"Los viernes nos dejaban reunirnos en la ikastola para tocar. A partir de COU, entre los 17 y 27 años estuve además componiendo canciones para conocidas bandas. Después empecé con los relatos, y en 2010 publiqué en internet ***Historia de un crimen perfecto***. A partir de entonces, gracias a la excelente acogida que tuvo este relato, me llamó una editorial para escribir otra novela, pero esta en formato tradicional. De ahí surgieron el libro ***La última noche en Tremore Beach*** –cuyos derechos ha comprado Alejandro Amenábar para un posible adaptación al cine o la pequeña pantalla- y mi dedicación en exclusiva como escritor. Hasta entonces trabajaba como programador informático, otra de mis aficiones de adolescente; con 13 años tuve mi primer ordenador y empecé a trastear con la programación, que, tras terminar Sociología, se convirtió en mi profesión, de la que he vivido durante más de18 años".

Otra anécdota que nos cuenta Mikel, es que el viaje de estudios con Asti Leku a Amsterdam fue el responsable de que un tiempo después se fuera a vivir allí, lo que le llevó a instalarse en Holanda durante 10 años; ahora reside en Bilbao, donde, combina su actividad como escritor con su banda de rock.

Cuando estábamos acabando la entrevista, apareció Gotzone Egia, su profesora de entonces y amiga para toda la vida. Juntos rememoran aquellos tiempos en que, tras trasladarse la familia de Mikel a vivir a Loiu, Gotzone, que ya vivía allí, los traía en el coche a la ikastola todos los días.



Para terminar, no por ganas, sino porque el tiempo apremia, le pedimos a Mikel un consejo o reflexión para nuestros alumnos y alumnas, sobre todo los más mayores, sobre cómo orientar su futuro académico y profesional. – " Pensad más en el cómo que en el qué; no es tanto lo que estudias sino el tipo de entorno en el que te ves trabajando feliz, acorde con tu temperamento, tus gustos, tus aficiones, tu forma de ser… Yo quería ser roquero, estudié Sociología en la universidad, y me formé de manera autodidacta como músico y programador. Hoy en día trabajo como novelista y soy feliz con mi vida, con todo lo que esta profesión conlleva, con mi entorno…".












## JOLASAK




# DENBORAPASAK
## ZURE EUSKARA MAILA HOBETZEN

*ALDIZKARIAREN ATAL HONETAN ERA LUDIKOAN ETA ENTRETENIGARRIAN ZURE EUSKARA MAILA HOBETZEN LAGUNTZEN SAIATUKO GARA. HORRETARAKO EUSKARA LANTZEKO INTERNETEN DAUDEN JOLASAK, HITZ JOKOAK, ESAMOLDEAK… HONA EKARRIKO DITUGU ZUEKIN PARTEKATZEKO. BATZUETAN NAGUSIEI ZUZENDUTAKOAK IZANGO DIRA ETA BESTE BATZUETAN FAMILIA OSOA ELKARREKIN JOLAS DADIN.*

***JOLASAK ETA ESKULANAK TXIKIENTZAK***

Hemen eitbk eta Urtxintxak eskaintzen dituzten familian jostatzeko jolasak, abestiak eta eskulanak aurkituko dituzue.



# EUSKALPLAY

***ADIN GUZTIETAKOENTZAKO JOKOAK LHKO 1. MAILATIK GORAKOENTZAT***

Abenduko ale honetarako Azkue fundazioak sortutako Euskalplay joko-sorta aukeratu dugu zuei proposatzeko:

"Joko-sorta honen helburu nagusia euskara sendotu eta bultzatzea da, online dauden zenbait jarduera baliatuz. Jarduera horietan, erabiltzaileak aplikazioarekin (edo aplikazioaren kontra) egingo du jolas eta, bide batez, euskararen historioa, euskalkien kokapena, euskalkietako hitzak, euskararen hitzen jatorria, euskaldun ospetsuak, euskarazko esaerak eta eguneroko bizimoduarekin lotutako hitzak ikasi eta landuko ditu. Beraz, nagusiki tresna pedagogikoa dugu hau, eta Lehen Hezkuntzatik Batxilergora bitarteko gaztetxoen artean euskara sustatzeko sortu dugu, beren jolaserako grina eta gure irakatsi nahia uztartuz"-azaltzen dute Azkue Fundaziokoek.

***JUEGOS PARA TODAS LAS EDADES A PARTIR DE 1° DE PRIMARIA***

Azkue fundazioa ha creado Euskalplay, un conjunto de juegos con carácter pedagógico, aptos para todas las edades a partir de 1° de primaria. A través de ellos conoceremos mejor nuestra lengua, su historia, sus refranes, expresiones cotidianas…

***JUEGOS Y MANUALIDADES PARA LOS MÁS PEQUEÑOS***

Aquí encontraréis juegos, canciones y divertidas manualidades que ofrecen eitb y Urtxintxa para disfrutar en familia.




***EUSKERA MAILA HOBETU NAHI DUTENENTZAT***

Euskera maila hobetu nahi dutenentzat aurreko alean bezala, Euskaljakintzak eskaitzen dituen jokoetatik bat ekarri dizuegu oraingo honetarako, ortografia lantzekoa, hain zuzen ere.

1 2 3 4

5 6 7 8






IKASTOLA KOOPERATIBA

**IKASTOLA**
Grumete Diego 19
48920 Portugalete

**HAUR ESKOLA**
Miguel de Unamuno 33-35
48920 Portugalete

**944 937 020**

**www.astileku.eus**
astileku@ikastola.eus